

# Bero-beroan

## Euskara exotikoaz

LASTATEGITIK erabiltzaileak *Tiraka.net* blogean ondokoa idatzi du: “Erdarazale uniformistek, espainolek bereziki, sarri askotan erabiltzen dute euskararen zailtasunaren, exotismoaren, isolamenduaren, berezitasunaren eta beste zenbait ‘tasunen’ argudio faltsua, euskaldunen hizkuntza iragane-ko bitxikeriatzat jotzeko xedez. Bada, hala ere, euskaltzale izan arren amarru horretan erortzen denik, hanka aldakaraino sartuz”. Eta *Garak*, Idoia Erasok Claude Hagegeri egindako elkarriketa hartu du adibidetzat. Elkarriketaren goiburua eta galdera batzuk nabarmendu ditu:

- ✓ “Euskararen sintaxia oso exotikoa da europarrarentzat” (goiburua). Galderetako batzuk:
  - ✓ Baina guztiek ez dute lortzen hizkuntza bat ikastea. Euskara ikaste-ko, adibidez, batzuek arazo asko dituzte.
  - ✓ Zein dira beste hizkuntza ergati-boak munduan?
  - ✓ Zerk egiten du hizkuntza desberdin besteengandik?
  - ✓ Fonetikari dagokionez, hizkuntza batzuk umetan ikasten ez badira gero ia ezinezkoa da zuzen hitz egitea lortzea.
- Topiko horiei aurre egiteko Lastategitik erabiltzaileak Juan Carlos

Moreno Cabreraren hitzak erabili ditu: “Hizkuntzak berez ez dira ez zailak ez errazak. Berdin-berdinak dira”.

## Udaltop-eko hitzaldiak hartzeko moduan

MAIATZEAN egin ziren Lasarte-Orian (Gipuzkoa) Udaletako Euskara Zerbitzuen I. Topaketak. Webgunean ([www.udaltop.com](http://www.udaltop.com)) zintzilikatu dituzte ponentziak, aurkezpenetako material grafikoak, parte-hartzaileek egindako galderak eta hizlarien erantzunak, eta bestelako materiala.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

## BAHEA

Josep-Lluís Carod-Rovirak *dBalears.cat* webgunean esanak: “Hizkuntza Politikak positiboa, inklusiboa, erakargarria eta sinpatikoa izan behar du. Hizkuntza estrategia berpentsatzea ez da porrota, garaipenerako giltza baizik”.

Isabel Celaá Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak *Berrian* esanak: “A ereduarekin zerbait egin behar dugu, nahi dugulako derrigorrezko hezkuntza aldia amaitzean, ikasleek bi hizkuntzak jakitea. Ez da posible 13 edo 16 urte eta gero, euskarazko hiru-lau-bost ordu emanaz astero, ikasleek txintik ere ez jakitea. Uste dut, agian, metodologia begiratu beharko dela. Irakasleekin hitz egin, A erdua aukeratzen duten familiarekin. Saiatuko gara A erduaren barruan ere euskara erabiltzen irakasgai batzuk irakasteko. Ikasleak barnetegietara joan daitezela bultzatuko dugu, euskal idazleen material didaktikoak eskainiko ditugu...”.

Paula Kasaresek *Gipuzkoaeuskara.net-en* esanak: “Azken hiztunaren hiltzeak ez dakar nahitaez hizkuntzaren desagertzea. Herri bateko azken hiztuna desagertuta ere, hizkuntza galdu berriak komunitate horren oroimen kolektiboan bere arrastoa uzten du eta hori hizkuntza berpizteko hazia izan daiteke”.

## TALAIAN

### Garoa eta enplegua

Euskal Herritik gertu dagoen Garoña, zentral nuklear arriskutsu eta zaharkitua, 2013 arte irekita mantentzeko Espainiako Gobernuaren erabaki salomonikoak, oso erreakzio ezberdinak izan ditu eragile politikoek, sindikatuen, patronalaren eta ekologisten artean. Espainiako Gobernuaren jarrera ez dator bat bere hauteskunde promesekin eta energia berriztagarrien aldeko balizko apustuarekin. Ustezko demokrazia parlamentarioan gaudenean, herri borondatearekiko errespetu falta da hori, Batzar Nagusietako mozioetan, udaletan, Gasteizko Parlamentuan eta herri mugimendu ugarietan adierazitako borondatea. Hemen nabarmendu nahi duguna da Garoña-ko eta eskualde hartako enpleguaren gaia. Bai Gobernuak, bai nuklearren lobbyak, baita enpresa eta langileen batzordeak ere, arrazoi hori erabili dute zentrala irekita mantentzeko edota bere bizitza 2013 arte luzatzeko.

Espainiako Gobernuak eta lekuko administrazioek, baita enpresa batzordeak ere, urte asko dira bazekitela zentral zaharkitu hori lehenago edo geroago itxi egin behar zela. Zer egin dute azkeneko urte hauetan lanpostu alternatiboak sortzeko edo enplegua exijitzeko? Zapaterok dio Garoñaren bizitza luzatuko dutela lanpostu alternatibo horiek sortzeko denbora izan dezaten. Zinismo hutsa! Enpresa batzordeak Garoñaren itxiera arbuatzen du beren lanpostuen defentsan. Pedagogia berria behar da sindikatuetan eta enpresa batzordeetan langileak ez manipulatzeke. Enplegu bat izateko eskubideak ezin du egon beren familiaren eta Garoña-ko arrisku eremuan bizi diren ehunka milaka pertsonen bizitza eskubidearen gaintetik. Eta Garoña segurtasunik gabeko munstro arriskutsua da, populazioarentzat eta ingurumenarentzat hondamendi konponezina sortzeko kapaza. Hondamendi horren arduradun izango lirateke Zapateroren Gobernu eta nuklearren industria. Eta baita enpresa batzordea bera ere.

Juan Mari Arregi

## Ateak zabaldu behar dira, itxi ez

**ESTRASBURGOKO** auziak ezker abertzaleko sektore askoren esperantzak latz zapuztu ditu. Edozer aurreikusten zen, baina esperantzak ere handiak ziren... Alderdien Legearen aurkako jarrera agertu dutenentzat, Batasunaren legez kanporatzeak erabat urratzen ditu joko politikorako arauak; hala adierazi da behin eta berriz berau indarrean jarri zenetik. Alde horretatik ezinezkoa da irenstea Estrasburgoko Auzitegiak emandako epaia, nahiz eta berau prestigio handia pilatu duen auzitegia izan –euskaldun askoren aurrean bederen orain lehen baino apur bat gutxiago–.

Funtsean, giza eskubideen auzitegi europarrak bat egin du Espainiaren ikuspegiarekin eta ENAMen ikusmolde estrategiko eta ideologiko bateratuak zigortu ditu. Mugimendu zabal horretan egon daitezke Espainiako Kode Penalaren arabera delituak diren jarduerak, eta horiek jazartu eta zigortzen dira. Baina Estrasburgoko auzitegiak, nagusiki une zehatzei lotutako jarduerak baliatu ditu ilegalizazioak zilegizatzeko: Batasunak deitutako manifestazio batzuetan ETArekin aldeko eta bestelako oihuak entzun izana, zenbait udalek etakideak herriko seme-alaba kuttun izendatu izana, Batasunaren webgunean Amnistiaren Aldeko Batzordeetako ikurra erabiltzea... Horietako ‘froga’ asko ez lirerateke delitu gisa hartu behar, eta beste batzuetan deliturik bada, pertsonak izen abizenak dituzte edo, esaterako, ekitaldi zehatzak legez kanpo ere jar daitezke.

Baina ez, eta hor dago epai honen larritasuna, ustezko jokaera horiek multzoan hartu eta Batasuna eta ETA bat izatearen tesia onartzen du zeharka. Areago, atentatuen aurrean

isilik mantentzea bera delitu bilakatzeko du: “Zenbait egoeratan, isiltasuna sostengu zehatza izan daiteke”. Alarma soziala aipatu da horretarako, baina bitxia da, badirudi 40 urtetan ez dela alarma sozialik izan, eta 2003tik aurrera bai. ETArekin aurkako borrokan estrategia aldatu izanari –“dena da ETA”– orain alarma soziala deitzen zaio.

Batasunak aspaldi dauka oso aldapa gora politikan aritzea eta honek bidea tentetu dio, zalantza barik. Ezker abertzaleak, bai barne mailan duen eztabaidan, bai ildo burujabearen bultzadari begira, oso kontuan hartu beharko du errealtate berri hori. Espainiak ongi erabili ditu Europako hariak eta emaitza ona lortu du. Epaia, gainera, bestelako erabakiak ere erraztu ditzake, aspalditik ari da zurrumuru gisa Frantziak ere Batasuna legez kanpo jar deza keela. Han ez dago alarma sozialik, baina beti esan liteke hegoaldeko auzokoarena nahiko dela.

Epaia ez du euskal gizarteko egoera politikoa aldatzen: Alderdien Legeak eskubideak urratzen ditu orain ere. Egiten duen ekarpena erpresioaren eremukoa da eta, beraz, arazoaren muinari ihes egiten diona. Auzitegiak garrantzitsuak badira ere, oraingoz euskal gizartearen iritzia baliotsuagoa da, eta berau modu askotan agertu da Alderdien Legearen aurka; edo pentsatu beharko da berriz ere, herritarren borondateak eta iritzia bakarrik balio duela ETArekin desagertzeko esaten zaionean?

**GARONA-KO** zentral nuklearra 2013ra atzeratzea arrisku handiko maniobra bihurtu du Zapatero presidentek, PPK argi adierazi baitu 2012ko hau-

teskundeak irabaziz gero, zentralaren bizitza luzatuko duela, Segurtasun Kontseiluak hala baimentzen duelako. 2011n ixteko agindua bete ez bada, zergatik sinetsi behar 2013an baietz, areago akaso erabakia PSOEren esku ez dagoenean? Aukera bikaina galdu da eta zalantza airean geratzen da berriz, eta indar handiz gainera, batez ere ikusita egunetik egunera indar nuklearraren aldekoek energia mota honen alde mundu mailan egiten ari diren propaganda.

**HAMAIRU** urte EAEko lehendakariarekin bildu barik igaro ditu Miguel Sanz lehendakari nafarrak. Ez Ibarretxerekin ez Ardanzarekin. Ez EAEkoek nahi ez dutelako gainera, hauek behin eta berriz agertu baitute horretarako konpromisoa. Sanzek eta UPNk euskal abertzaletasuna erasotzaile gisa ikusi eta saldu dute, foru erresumarekiko begirune ezaren agerle gisa, eta hortik hitza ukatu. Abertzaletasunak ere egin beharko ditu bere kritikak Nafarroaren gaia jorratu izan duen moduan jorratu izanagatik. Baina Nafarroan bizi den euskaldunak eta abertzaleak, badaki Sanzen argudioak bere parrokiaren erabili eta politika egiteko molde eta aitzakiak besterik ez direla, eta barruko euskal usaina duen orok ere EAEko abertzaleak beste artegatzen dutela. Arazoak hitzaren bidez konpontzeko artea ei da politika, salbu eta Nafarroako Gobernuko lehendakariarentzat. Bildu dira, azkenean, Patxi Lopez eta Miguel Sanz, ekimenak fruitu oso mugatuak izan ditu eta ezin berri gehiegi espero sinatu den hitzarmenetik, baina balio dezala behinik-behin gutxien gutxienik auzokoen artean arrautzak eta esnea lasai asko elkar trukatzeko hasteko.